

Noqua!!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko otsailak 7

Usurbil, 13. Zenbakia



**ANGULA: ORIAKO
ALTXORRA**



HILDAKOAK



1997-01-31
Jose Maria Urdangarin Kamino
 62 urte.
 Aginaga



1997-02-04
Juan Joxe Pagola Esnal
 83 urte.
 Kaleberri.

JAIOTZAK



Julen Lertxundi Olazabal
 (1997-01-23)
 Bizkarra kalea

Maria Rivas Alvarez
 (97-01-14)
 Puntapax kalea

Mikel Romero Aizpurua
 (97-01-20)
 Erdiko kalea

Bai, esan?

- | | | | |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 85 | • Gure Elkartea egoitza | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaua! aldizkaria | 36 03 21 |

USURBILGO UDALA
 Aldizkari honek
 Usurbilgo Udalaren
 laguntza jaso du

**Dagoeneko 300 usurbildar
 bazkide ditu Noaua!-k
 Zu ere egin zaitez bazkide!**

kutxa fundazioa

Kultura sailak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL
(Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943)
36 03 21. e-mail: Noaua.
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.
Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar,
Ines Kamino, Leire Atxega,
Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Begoña Zubiria,
Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfonso
Vidal eta Nieves Aranburu.
Administrazioa: Arantxa
Usaralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz,
Mertxe Olaizola.

Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe
Antonio Labaien, Juan Luis
Izeta. **Informatika:** Pili Lizaso.
Banaketa: Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Tirada: 2.000 ale. **Sukaldaria:**
Joxe Mari Sarasola

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esamen
eta iritzien erantzunkizunik.

PORTADA:

Angulak Txina eta
Japoniara esportatzeko
kutxan.

Ihauterietan umorez beterik gatoz

Atxegaldeko emakume mozorrotuak

Gure haurrak txikiak zirene-
an hasi ginen mozorro-
tzen. Ostiralean, ikastolara joa-
teko mozorrotu ohi ziren. Gu
beraien bila joaten ginen auto-
bus geltokira arratsaldean.
Haur guztiak mozorrotuta etor-
tzen zirela ikusita, geuk ere
gauza bera egitea pentsatu
genuen. Horrela, urte batean
bakoitzak bere kontura mozo-
rroa prestatu genuen eta gu
ere ihauteri giroan murgildu
ginen. Herriko kaleetan zehar
ibili ginen, nahiko farre eginez.
Eta iluntzean, etxera afaria
prestatzera.

Pixkanaka-pixkanaka hobeto
antolatzen hasi ginen. Aurretik,
denbora hartuta ekin genion
mozorroa pentsatzeari. Denok
berdin mozorrotzea zen gure
asmoa, eta horretan hasi
ginen. Zenbait urtetan geure
haurrak ere gurekin atera izan
dira. Urte batean kanibalez jan-
tzi ginen. Eta gutako baten
alaba negarrez egon zen den-
bora osoan ama ezagutzen ez
zuelako!

Urteek aurrera egin ahala,
seme-alabak hazi egin ziren
eta ez genuen autobus geltoki-
ra beraien bila joan beharrik.
Horrela, ostiralean mozorrotze-
ko ordeztu, larunbatean hasi
ginen; mozorrotu, afaltzera
irten eta ondoren, frontoira,
han egoten baita giroa eta
martxa! Semerik ere hor
ibiltzen dira, eta ez dute barre
gutxi egiten beraien elkartzen
garenean!

Ohitura hau uztea pentsatu
izan dugu zenbait urtetan;
batzuek lanegatik, mozorroa
josteko denbora faltagatik,
edota gogo ezagatik. Baina,
hala ere, azkeneko orduan,
beti animatzen dugu elkar, eta
azkenean, kalera!

Zertaz mozorrotuko zarete?
Aterako zarete, ezta? galdetu
izan digu jendeak. Gure eran-
tzuna beti berdina izan ohi da:
ah! sorpresa!

Beraz, irudimena eta umorea
dauzkagun bitartean jarraituko
dugu. Eta aurten ere...



Telesforo Ardoak

Zure
mahairako
egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

MAHUKA

GAZTE DENDA

Orain, neguko
merkealdia

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06

Buru-azalar enzaiketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

MAHAI NAZIONALEKO KIDEAK KARTZELATUAK

Komunikabideen eginkizuna da boterearen babesean irautea. Haiek ere enpresa pribatuak dira eta, zenbat eta gobernuetatik hurbilago, orduan eta diru gehiago patrikara, Frankismoan bezala, ezertxo ere ez da aldatu, honetan.

Gaur egun alderdi politiko gehienek aitortzen dutenez, egoera honi ezin zaio polizi bidezko soluziorik eman. Euskal Herriak bizi duen liskar eta gatazkari amaiera emateko asmoz, 1995eko apirillean ETA erakundeak "Alternatiba demokratikoa" izeneko dokumentua egin eta Herri Batasuna hasi zen zabaltzen herritarren artean.

Bertan esaten zen konponbide negoziatua bilatu behar zela: ETAK Estatu espainolari eskatzen zion Euskal Herria aintzat har zezan (gaur, praktikan, ezer ez delako). Euskal Herriko jendeak erabaki beharko zuen etorkizunean zer izan, e.a.

Konponbidea Estatu eta Gobernu espainolei gustatu ez eta, ondorioz, dakiten bide bakar horretatik erantzun dute: Mahai Nazionaleko kideak detenitu eta kartzelan sartzea. Arazo bat ez dago, nonbait, arazo hori plazaratzen dutenak tartetik kendu ondoren. Hori da bake-bide ofiziala.

Aldizkaria maketatzeraz sartu behar den une hauetan Mahai Nazionaleko kideak kartzeleratu dituzte eta bost milioi pezetako fidantza eskatzen dutela jakin dugu. Madrilek hartutako neurri gogor honen aurrean, Usurbilek ere hartu beharko lituzke bereak, denok ulertzen duzuen bezala.

USURBILGO HERRI BATASUNA

OKERRAK ZUZENDUZ

Aurreko alean **Kontzeju Txikiko** erreportaiari Maria Angeles Errastiren izena aipatu genuen. Bere izena, ordea, **Maria Angeles Altuna Errasti** da.

Txirikitutik



Frontoiko lanak egiten hasi direnean, ezker pareta ubide baten gainean eraiki zutela ohartu dira. Antza denez, lehen, frontoia egin aurretik, Gaztañagako baratza inguratzen zuen harresian aska zegoen. Handik behera urak joaten ziren ubidea dugu hau.

PORTUARRAUNE



**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99

ORKOI
GANETAKO
DENDOT

Aritzeta 2 - 2 Usurbil

L6 T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42



PATXI ILLARRAMENDI

**Txokoaldeko Simonenea baserrian jaio zen 1912an. Aitak eta amak erakutsita zortzi urterekin hasi zen angulak harrapatzen. Ordu ezkerro angula ugari harrapatu izan du Oria ibaian. Orain, beraiek garai hartan anguletarako erabiltzen zuten alen miniatu-
rak egiten pasatzen du eguna. Horrez gain, telebis-
tan edozein kirol ikustea oso gustokoa du, batez ere futbola.**

Txokoaldekooa izanik arraun kontuan Orioren aldekoa?

Bai noski. Txokoalde eta Aginaga aldean Orioren aldekoak ginen gehienak. Nik probak egin nituen 20-21 urterekin baina ez nuen balio. Garai hartan arrauna estimatua zen.

Aginagak ere irabazi zuen Kontxako bandera. Ospatu al zenuten hura?

Ni ez nintzen joan ere egin. San Estebango bailara eta Aginagaren artean beti egon dira diferentziak, gorrotorik ez baina...

Eta angulak harrapatzerakoan, izaten al zen ikamikarik?

Garai hartan 50-60 ala ibiltzen ginen Oria erri-
an, eta gauean ez zen ikamikirik izaten. Orain muturjoka ibiltzen direla entzun izan dut, baina orduan ez zen horrelakorik izaten. Batzuek angula gehiago ateratzen zuten, besteek gutxiago, batzuek onak, besteak txarragoak...

Etxean zenbat ibiltzen zineten angulatan?

Guk hiru ala genituen. Gure familian guztiok egiten genuen angulatan. Arrebek igeri bazekiten, eta haiek ere askotan joaten ziren angulatara.

Ni osabarekin joaten nintzen, eta 10-12 kilo ekartzean aitak eta anaiak burla egiten ziguten: "hori besterik ez al dezute ekarri", esaten ziguten.

Zuek haztegiak zenituzten ezta?

Bai guk eta bai beste arrantzale askok ere. Bakoitzak bere haztegia izaten zuen. Guk, Frantziatik ekartzen genituen angulak. 1000 kilo ekartzean erdiak bakarrik iristen ziren bizirik, azpian zeudenak hil egiten ziren. Hauek berehala jan edo plazako oilaskoei ematen genien jateko. Orduan ez zegoen hozkailurik.

Oraingo txalupa modernoak izan ezkerro, zenbat angula harrapatuko zenuten?

Eramandako ala leporaino bete. Oraingo moto-

rrekin ez jakin zenbat kilo harrapatuko genituzkeen. Orain berriz, angula gutxi eta muturjoka asko. Gu ixil-ixilik ibiltzen ginen. Angula ez baldin bazen elkarriketa bai, baina bestela kinkarik ere ez, eztulen bat edo beste...

Angula harrapatzeko garairik onena?

Ilargi berria, gau iluna izaten baita. Gero ilargi betean urak zikintzen zirenean ere oso ona izaten zen, angulak ez baitu ikusten. Angula txikia da eta bere defentsa iluntasuna izaten da. Egunez ez da ikusten, gero gauean ahal badu bazterretik joaten da. Hotz haundia badago ur azpi-azpitik, eta epela badago gainetik.

Zer dela eta dago orain gutxiago?

Bistakoa da. Aita eta amak itsasoan harrapatzen dituzte eta hauek gabe umerik ezin egon. Urtez-urte gero eta angula gutxiago dago.

Aginagatik kanpo anguletan ibilia zara?

Galizian, Vigon. Han bi urte egin nituen. Miño ibaian ibiltzen ginen. Han kolpeka harrapatzen zen angula. Hamabost egunetan beharbada batere ez, hurrengo egunean berriz, 1000 kilo inguru.

Angulak harrapatzeaz gain beste lanbiderik izan duzu?

Michelinen egiten nuen lana. Angulatan gaztetan egiten nuen gehien. Soldaduskatik etortzean erruedak egiten hasi nintzen. Lasarteko lan-tegian egindako lehenengo kubiarta nire eskue-tatik pasa zen 1934an. Hegazkinen gurpilak egiten nituen. Hala ere, gauean angulatan egin, erropak aldatu eta zuzenean lanera makina bider joana naiz.

Oria ibaia zikina dago .

Orain ezin da bertan igeri egin. Gu umeak gine-nean edateko modukoa egoten zen, lau metroko sakoneran hondoa garbi garbi ikusiz.

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)



URTINEA
LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55


BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2

Tlf. 36 40 58

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

**Larrosa bat da
Urdaiaga, ez zabortegia**

La hutsetik hasi zena egun **Andatza** barreneko mendi gailurra **zabortegia** bihurtuta daukagu. Badirudi auzoko bizi-lagunek eta usurbildarrek ohitura txarra hartu dugula: etxean nahiz inguruan aurkitzen dugun **zikinkeria zabortegi honetara** botatzea. Ez da bro-ma. Gero eta zabortegi haundiagoa bihurtzen ari zaigu **Berreiarza goienaren** azpikoa.



Aspaldi honetan zurrumuruak iritsi dira gure belarrietara: **Ingemarrek erribera** aldean betelanari ekiteko kendu egingo dutela esaten dute. Noiz iritsiko ote da egun santu hori! Abestiak dioen bezala: **"Larros bat du Usurbilek polite-na, politena; ta zera zu Urdaiaga bihotzeko San Esteban"**. **Urdaiaga** larros izatetik zabortegi izatera pasatzea ez dezagun onar.

Nor da guzti honen ardura-duna? Ez ote dago zaborrak botatzeko beste leku aproposagorik? Eta zabortegiaren inguruan ibiltzen diren arratoiak? Zer egin? Zabortegiaren ondoan bizi direnak **nazka-nazka** eginda daude. Leku hau ikusi hutsak **auzokideak** lotsa arazten gaitu. Zerbait egitea posible balitz...

ZUBIETA



**Xabier
Arregi**

**Zubieta Pilota Elkarte
txapelketan jo eta su**

Ospatu zen korrika apus-tua **Zubietan** eta pasa ahala gauza bat utzi zuen nabarmen: oraindik badela **"hipodromoa ez al dago ba Lasarten?"** galdetzen duenik. Eta tartean **usurbildar despis-taturen bat** ere bai. Garbi dago geroz eta jende gehiagok erabiltzen duela **"Zubietako hipodromoa"** eta ez dela gutxi, alafede, hainbeste urte-tako ohitura gaiztoari buelta ematen hastea. Haatik, komunikabide batzuen aditu nahi ezak lehengoan dirau. Hortaz, gorreria sendatu arte zubieta-rrak errepikatze lan etengabe-an segi beharko dugu.

Pasa da krosa, baina kirola da albiste **Zubietan**. Oraingon **Joko Garbiari** egokitu zaio txanda. Joan den astebukae-ran hasi ziren **Gipuzkoako ez-ker pareteko txapelketak** eta, ohitura den bezala, **Billabonako eta Zubietako bikoteak** dira parte hartzen dutenak. Hiru mailatan banatuta antolatu dira aurtengo txapelketak: helduak, gazteak eta haurrak.

Helduen mailan zortzi bikotek eman dute izena, horietatik lau **Zubieta P. E.**koak dira. Gazteen artean lau bikote daude, erdira **Billabonako eta Zubietakoak**. Eta, azkenik, bost dira haurren kategoriako bikoteak, horien artean hiru **Zubietakoak**. Partidu guztiak **Amasako** frontoi estalian jokatu dira larunbat arratsalde eta igande goizetan. Txapelketa otsailaren 2an hasi zen eta martxoaren 1ean bukatuko da. Gipuzkoako txapelketa honen ostean **Hego Euskadiko txapelketa** etorriko da eta bertan **Iruritako** bikoteek ere lehitzeko aukera izango dute.

ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

**Ariztitxo kaleko barandi-
la apurtu dute**

Orain dela aste pare bat harrituta gelditu ginen Mari Pazen denda parean hormigoizko barandilaren zati bat lurtean ikustean. Dirudenez, San Sebastian bezpera gauean apurtu zuten. Suposatu genuen norbaitek kotxea aparkatzerakoan kolpe bat emango ziola, baina ez genuen uste hain erraz puska zitekeenik.

Hala ere, arraroa da inork ezer entzun ez izana. Hone-lako harri puskak jo edo erortzean soinua atera behar du,



baina Atxegalden inor ez zen ohartu.

Duela urte batzuk berri-tuzten barandilla hauek, itxuraz behintzat nahiko sendoak diruditelarik. Edo ez dira hain sendoak edo kolpe latza eman zien norbaitek.

Ikastola aldean bada soinu eta zalapartarik. Otsailaren 4ean Santa Ageda bezperako eskean ibili ziren. Makilak hartu, eztarriak berotu eta

herrian zehar ibili ziren kantari. Ostiralean berriz, ihauteriak direla eta, haurrak nola moztortzen diren ikusteko aukera paregabea. Horrez gain, lehen zikloko haurrek euskal musika gaitzat hartuta beren dantzatzeko abileziak erakutsiko dituzte goizean.

AGINAGA



Iratxe
Begiristain

Arrate egoitzako jubila- tuen urteko balantzea

Urte berriarekin batera leku askotan aurreko urteko **balantzea** egin ohi da. **Arrate zahar egoitzako jubilatuen** ere ez dira atzean gelditzen. Otsailaren 16an egingo dute **1996. urteko balantze ekonomikoa**. Hala ere, balantze hori egiteaz gain egun osoko egitaraua zehaztu dute: goizeko 10.30etan **meza nagusia** izango da. Ondoren, hamaitakoa egiteko denbora piskat utzi eta gero, **batzarrari** ekingo diote eguerdiko 12.00etan. Balantze ekonomikoa burutu ostean, tripa betetzeko garaia. Diru kopuruak ahaztu eta **bazkari goxo-goxoa** eguerdiko 14.00etan.

Bestalde, aurreko alean eskatzen nuen bideen konponketa errealitate bihur daiteke 1997an. **Herri Batasunak** joan den urtarrilaren 29an aurkeztu zuen aurrekontuen zirriborroan sartuta dago **Aginagatik Izipira bitarteko bidearen konponketa**. Honekin batera **Intxaurretan argitegi berria** jartzeko asmoa dute.

TXOKOALDE



Iñaki
Labaka

Trenak jota bi abere hil dira Itzau parean

Ale honetako lerroak idazte-arakoan ohartu naiz **Txokoaldetik** zerbait aldendu naizela, baina **Urdaiagako** zatia denez, inguru honetan gertatutako **istripu baten berri** emateko erabiliko dut nire tartetxo hau. Orain dela egun batzuk, **Itzau baserriaren parean**, **Orioko mugan** ia-ia, **trenak bi abere harrapatu** eta **deskarriatu** egin zen. Terreno horietan ganadua larrean libre ibil-



tzen denez, behin baino gehiagotan tren bidera sartzen dira, oraingoan ezbeharra gertatuz. Trena geldirik egon zen pare bat ordu. Bertan zihoazen bidaiariei ez zitzaion ezer pasa, **zauriturik ez zen izan** eta **Usurbildik** etorritako beste tren batean eraman zituzten handik **Usurbilgo geltokira**. Abereek ordea, ez zuten zorte bera eduki, kolpearen ondorioz bat-batean hil baitziren.

Bestalde, udalak auzoa garbi eduki dezagun nahi du nonbait. Izan ere **Sozietateko plaza txoan** eta **haurren jolas parkean zakarrentzi bana** jarri dituzte. Beraz, aurrerantzean zaborra nora bota behar den badakizue, **Txokoalde** txukuntxukun mantendu dezagun behintzat.

KALEBERRI



Nieves
Aranburu

Udarregiren monolito inguruko harririk ez!

Horixe nioen orain dela hilabete irten zen 11. alean. Badirudi herritarren ahotzak zerbaiteko balio duela, momentuz behintzat. Frontoiko estalki berria egiten hasi bezain laister, **Udarregiren monolitoa inguratzen duten harri batzuk kendu** dituzte. Ez dakit behin betirako edo lanak irauten duten bitartean, baina momentuz estropozo egiteko arriskua txikiagoa da. Eta eskerrak! Izan ere, frontoiko lanekin **Etxebeste kaleko pasabidea estutu** egin dute, harriek jendearen ibilia oztopatuaz.

Etxebeste kalea alde batera utzi eta **kale nagusira** bueltatxo egingo dut. **Jubilatu askoren** bizi-poza paseiatzea izaten denez, hauen **kexak** entzun behar izan ditut behin baino gehiagotan. **Bizkarreko etxeetatik kale nagusira** joateko oinezkoentzako leku **oso txarra** omen dago. Kotxeentzako bidea bai, baina oinezkoek bazter bazterretik, lekuri gabe joan behar izaten dute. Bestalde, **Santuenera Bizkarreko parketik** joan nahi izan ezker, parkeko eskailarak jeitsi eta landare haundiak daude. Hauek kotxeak ikustea galerazten omen dute. Ezbeharrak behar ez dugunez...





Eskudoak
(zure
abizenak,
ikurrak...
nahi duzuna),
kutxak,
ordulariak,
letreroak ...

"PELEX"

Zur taila gizona



Joxe Luis Elexpe

Usurbil

☎ 36 47 83

ABURUZA TAILERRAK, S.L.

Ugarte industrialdea 7 pabiloi

Tlf. 37 20 02 - Fäxa. 37 17

*Haur
jantziak*



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43



ZUMETA
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!

ZENDOIA - ENEA



Goizeko 7atik irekia

Gosariak, hamaiketakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25

DANTZATUZ EGITEN ZEN KALEJIRATIK ZIRKO MUNDIALERA

Badatoz ihauteriak!, etxe batarian ditugu mozorrotzeko egunak. Batzuk, jadanik mozorroa prest edukiko duzue, baina izango da dena azken momentu arte utzi duenik ere. Oraindik ez duzula ezer prestatu? Ekin lanari, ez denborarik galdu. Aurtengo honetan Usurbil zirko haundi bat bihurtuko zaigu otsailaren 8an. Bestela ere nahiko pailazo eta asto ez, eta orain zirko bat herrian. Besterik ez genuen falta.

Usurbilgo ihauteri festak **bost urte** beteko ditu aurten. 1992. urtean egin zen lehen festa eta ordutik, urtero-urtero, ihauteri larunbatean mozorroak nagusitzen dira Usurbilgo kaleetan.

Dantza taldeak eman zuen lehen pausoa. 1991an ihauterietan dantzarekin zerikusia zuen zerbait egitea pentsatu zuten, baina azkenean ideia ez zen gauzatu. Hurrengo urtean, ordea, ez zuten hutsegini.



Herriko jendeari **bost dantza** erraz erakutsi eta herriko kaleetan kalejira egitea otu zitzairen. Honekin batera, egun osoko egitaraua prestatuko zuen batzorde bat sortu zen.

Aitor Labaka Usurbilgo dantza taldeko kidearen esanetan, *"egun honek arrakasta izan zuen. Kalejiran egondako giroa aipatzekoa da. Aurrez, bost astetan ensaioetara jende asko azaldu zen eta azkenean, 100 gazte inguru bildu ginen lehenik dantza egin, ondoren frontoian afaldu eta dantzaldian ondo pasa asmoz. Lehen urte honetan mozorroa zinta eta txintzarriez hornitutako zaku bat zen, buruan kukurutxo edo lastozko txapelarekin."*

Hurrengo hiru urteetan egitaraua antzekoa izan zen. Goizean haurrentzako tailerak, arratsaldean kalejira bost dantzekin afaria eta dantzaldia. 1995ean berriz, mozorroa erabat aldatzeko erabakia hartu zuten. Dantzak ikasteko ensaioetara inor ez zela azal-

tzen ikusita, aurreko urteetako mozorroa alde batera utzi eta **Usurbil ijitu herria** bihurtzea komenigarritzat jo zen. Ordu-rarte dantzatzuz egiten zen kalejiraren ordez frontoian antzerkitxo bat egin zuten zerbait ijituk.

Iaz denboraren makinan sartu eta 60. hamarkadan azaldu zen Usurbil. Ijituak alde batera utzi eta **hippy** ugari azaldu ziren herrian. Aurreko urteetako egitaraua mantendu arren antzerkitxoaren ordez, kalejira eta **karaokea** izan genituen.

Aurtengoan antzerkiak, karaokea alde batera utzi eta **zirkoa datorkigu Usurbila**. Sortu berria den zirko hau osatzen duten **koadrila ezberdinek** bere lehen emanaldia eskainiko dute dema plazan. **Akrobatik, lehoiak, elefanteak**, pailazoak...denetik dago iragarrita.

Ezin ahaztu angulararen ehortzketaihauteriei amaiera emateko egiten den ekitaldia. Aurten gainera txarangak lagunduta egin behar negar.



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

ANGULA: ORIAKO ALTXOR PREZIATUENA

Dudarik gabe, janahiko urrun geratu diren gabonetako jaki estimatuena da angula. Aurtengoan, 40.000 eta 50.000 mila pezeta inguru ibili da kiloa. Inoiz baino garestiago-saldu da arrain hau, beraz. San Sebastianetan ere ohizkoa da sozietateetan angula jatea, baina aurten ez da horrela izan, izan ere, soziedade gehienek prezioa dela eta ados jarri baitira angula ez erosteko. Honen ondorioz, jeneroa ez alferrik galtzeko, kasu batzuetan angula erdi prezioan ere saldu omen da. Kontuak kontu, usurbildar guztiok badakigu Aginagak duen fama angulak direla eta. Baina ba al dakigu angula zergatik den hain garestia? Edo nola dagoen arlo honetako merkaturua? Ondoko orriotan gai honen inguruko zenbait puntu argitu nahi izan ditugu.

Goizeko lehen orduetan ekartzen dituzte arrantzaleek angulak. Egun, enpresek 30.000 pezeta ari dira ordaintzen angula kiloa; inoiz ordaindu den diru kopururik haundiena. Behin enpresa barruan, angulek bi bide eraman ditzakete. Lehengoa gehienok ezagutzen duguna da: angula nikotina ttantta batzurekin hil eta ondoren ontzi berezi batzuetan egosten da (minutu bat inguru). Hemen hartzen du angulak ezagutzen dugun kolore txuria. Ondoren, jutezko arpil batzuetan jartzen da lehortzen, eta hemendik hozkailura sartzen dira. Azke-nik, ontzietan jarri eta saltzeko prest dago angula.

Esportaziorako prestatu


Angulak enpresa barnean jarraitzen duen bigarren bidea esportaziorako izaten da. Lehenik eta behin, angula

makina berezi batzuetatik pasatzen da garbitzeko, hilak baztertuz eta beste zikinkeria guztietatik bereiztuz. Ondoren, angula bizia haztegietara (biberoetara) eramaten da eta bertan lauzpabost egunetan egoten da belztu arte (angula gogortu egiten dela diote honetan dabiltzanek). Gero, haztegi hauetatik atera eta kaja berezi batzuetan sartzen dituzte. Kaja hauek material aislantea dute eta erdialdean hutsune bat dute izotza jartzeko. Era honetan bizirauten dute angulak bidai luzeetan.

Angula gutxi aurten

Aurtengo denboraldian ordea enpresa hauek ez dute hainbesteko lana izan. Izan ere, angula gutxi harrapatu da orainarte Aginagan eta kanpoan (salbuespen batzurekin, noski). Hau gertatzearen arrazoia bat baino gehiago izan liteke. **A. Bruño e Hijos** enpresako langilea den **Txema Moranen** esanetan, "oso zaila da jakitea hain angula gutxi harrapatzearen arrazoia. Batzuk diote itsasoko ura oso hotza dagoelako gertatzen dela hau, angulak ur epelagoak behar baitituzte ibaian barrena sartzeko. Beste batzuk esaten dute angula gehiegi harrapatu delako dela. Hau da, angularen zikloa apurtzen ari dela harrapaketa ez delako kontrolatzen. Kontuan izan behar dugu aingira batek 3.000 kilo angula egiteko ahalmena duela. Eta arrantzale askok aingirak arrautza jartzera joaten direnean harrapatzen dituztela".

Txemak arrazoi hauei kutsaduraren faktorea ere gehitzen die. Bere esanetan Valentzian izugarriko angula piloa harra-



Japon eta Txinara esportatzeko, angulak kaja berezi batzuetan eramaten dituzte (30-35 ordu iraun dezakete gehienez). Kaja hauek erdialdean zulo bat dute bertan izotza sartzeko. Era honetan angulek behar duen hezetasuna izaten dute.

patzen zen garai batean, eta orain berriz poluzioa dela eta ia denak hil egiten dira bertan. "Arrozaren produkzioarentzat ongari ugari botatzen dira ibaira eta horrek eragin zuzena du bertako bizitzan, eta ondorioz noski, angularen gan. Hau ordea soilik adibide bat da. Horrelako asko eta asko daude". Aginagari dago kionean, faktore guzti hauen eraginez angula gutxi harrapatzen da: "faktore guztiak dute garrantzia. Kutsadura, aingiren harrapaketa... baina horrek ez du esan nahi angula ez dagoenik. Angula gutxiago egongo da, baina badago. Izan ere, angula ibaiaren toki guztietatik sartzen da, bai gainetik, azpitik eta alboetatik. Angula arrantzaleek gainetik harrapatzen dute, nire ustez 10 anguletatik bat harrapatzen dute, beste guztiak azpitik zein aldamenetatik sartzen baitira. Beraz, bada angula, nahiz eta garai batean baino gutxiago izan. Okerrena da Tolosara iristerako angula hil egiten dela dagoen kutsadura haundiarengatik. Aginagatik gorako angula, angula hila da. Hori dela eta, nire ustez Orion arrantzatu beharko litzateke".

Zergatik da angula hain garestia?

Aurtengo prezioak ikusita, batek baino galdetu du nola den posible horrelako prezioak izatea. Goian aipatutako harrapaketa urriaz gain, badaude angularen prezioa igoarazten duen beste faktore garrantzitsu batzuk. Hauetako garrantzitsuena esportazioak dira. Gaur egun, Aginagan harrapatzen edo hazten diren angula gehienak Txina edo Japoniara eramaten dira. Txemak azaldu digunez, Txina da batez ere momentu honetako esportatzaile nagusia. Azken hamar urte hauetan



Angulek beren kolore txuria minutu batez (gutxi gora behera) ontzi hauetan egosi ondoren hartzen dute.

herrialde honen ekonomia hazten joan da etengabe, eta erosteko izugarrizko ahalmena du. Bezero hauek gutxi gora behera angula kiloak 40.000 pezeta inguru ordaintzen dutela uste dugu, prezio benetan esanguratsua. Harritzekoa bada ere, ekialdeko jendeak ez du angularik jaten, aingira baizik. Beraz, hemengo angulak erosten dituzte gero hango haztegitan aingira bihurtu eta merkatura ateratzeko.

Japonia berriz, Aginagako angulen esportatzaile zaharra da. Duela 20 bat urte hasi ziren Aginagako angulak harantz eramaten. Hauen merkaturua ere oso garrantzitsua da. Hauek Txinan hazten dituzte aingirak eta gero era-

maten dituzte Japoniara. Izan ere, aingirak hazteko ur eta leku asko behar da, eta beraiek ez dute bietatik gehiegi. Gainera, Txinan eskulan merkeagoaz aprobetxatzen dira.

Azken finean, esan daiteke Txina eta Japoniek angula produkzio osoaren %80-90a eramaten dutela. Iaz %50a eramane zuten, eta aurreko urteetan berriz %10a. Argi ikusten da azkeneko urtean eman den igoera izugarria herrialde hauetan. Nahiz eta hau izan gaur egun merkatu nagusia, Danimarka, Holanda eta Alemaniara ere esportatzen da hemengo angula. Ekialdeko herri hauen eskaera gainera haundituz joango dela uste dute, beraz,

Aginagako angula gehiena herri hauetarako prestatzen da. Hori dela eta, hemengo kontsumorako geratzen den angula urria oso garesti bihurtzen da. Badirudi gainera prezioaren joera gorakoa izango dela, behintzat angula piloa harrapatzen ez den bitartean. Angulararen kalitateak ere badu zeresana prezioan. Angula gaizki harrapatzen bada (sarea txarra delako edo txalupa azkarregi joan delako zaurituta harrapatu delako), bere kalitatea ere txarragoa da, eta nahiz eta bizirik erosi, beharbada segituan hiltzen da, eta horrek ez du baliorik, Txina eta Japoniek bizirik behar baitituzte. Beraz, enpresak dirua galdu eta prezioa igo egiten da.

Zer dela eta eramaten dute hemengo angula? Txema Moranek azaldu digu: *"Munduan 14 aingira mota daude. Ekialdean "Anguilla japonica" jaten dute. Honen zapore berdintsua omen du hemengoak, "Anguilla anguilla" delakoak.*

Horregatik eramaten dute hemengoa. Hemendik esatean Europatik esan nahi du. Hemengoaren atzetik berriz, amerikakoa erosten dute, "Anguilla rostrata" delakoa. Kontua da hainbeste direla, toki guztietatik eraman behar dituztela angulak beren merkatua asetzeko".

Legedia

Harrapaketen jeitsierak zenbait arazo sortarazi ditu arrantzaleen artean. Nola harrapatu, edo zenbat... ez dago inon araututa, ez Euskal Herrian ez Espainian ere. Hala ere, estatu mailan badago disposizio bat

non angulararen kontua sartzen den (1980/25 martxoa), baina orandik ez dute egin hau garatuko duen legerik. Disposizio honen arabera baldintza batzuk jartzen dira: angula nola arrantzatu daitekeen, lurretik edo itsasotik arrantzatu daitekeela, tranpa edo sare haundiak debekatu ta daude, arrantzaleek itsasotan angula harrapatzeko preferentzia dute... Baina oraindik honek ez du legerik.

Eusko Jaurlaritzak ere ez du inolako pausorik eman gai honen inguruan, aurreproiektuan dagoen arrantzaren legearen zain baitago. Aurreproiektu honetan ere angulararen aipamena egiten da, ondoren dagokion garapen parlamentarioan ere kontuan izateko. Jesus Murgiondo, Jaurlaritzako Arrantza antolaketaren arduraduna denak zera azaldu du: *"oraindik ez dugu ezer egin gai honen inguruan. Izan ere, hipotesiekin mugitzen gara soilik. Ez daukagu angularen inguruko inolako datu edo estatistika fidagarririk. Honetaz*

gain, Aldundia ibaietat arduratzen da eta gu berriz itsasotaz. Baina angula bi medio hauetan ibiltzen denez, izugarritzko nahasmena dago. Oraindik ez dakigu zeinen eskumena (kompetentzia) den". Jaurlaritza jadanik nahiko gogaituta dago angulararen erregulazioa dela eta ez dela, baina oraindik ez dakite noizko izango den arrantza berezi hau behingoz arautuko duen legea. Azken finean, badaude proposamen batzuk, baina ez dira legeetan mamitu oraindik.

Txema Moranen esanetan, arautu gabeko egoeraz baliaturik, penintsularen hegoaldean (Andaluzia eta Portugal hegoaldean) izugarritzko astakeriak egiten dira angulararen arrantzan. Ibai osoa sareekin itxi egiten dute, angula eta beste arrain guztiak bertan harrapatuta geratzen direlarik: *"gu horrelako basakeriak salatzen ditugu, eta jadanik poliziaren bitartez ari dira hau kontrolatzen, sareak apurtzen*



Aurtengo neguan enpresek 30.000 pezeta inguru ordaintzen diete arrantzaleei, inoiz baino gehiago.

dituzte. Hau egiten dutenak ez dira konturutzen hegoalde tik sartzen direla angula asko. Beraz, denak bertan harrapatzen badituzte, arrantzarekin amaitzen ari dira. "Gaurko jana eta biharko gosea"ren legea ari dira erabiltzen pertsona askorentzat."

Aginagan eta orokorrean iparraldean ez dira horrelako teknikak erabiltzen. Hemen baiarekin harrapatzen dira angulak, edo motorrari jarritako sareekin. Txemaren esanetan, *"hemen batez ere angulak ibaiaren gainaldetik harrapatzen dira. Era honetan ez zaio ibaiko bizitzari minik egiten"*.

Askok horrela uste ez badute ere, hemengo arrandegietan saltzen den angula gehiena Ipar Euskal Herritik eta Frantziatik etortzen da. Bertan badago gai hau arautzen duen legedia. Han angula arrantzale profesionalak daude, hau da, lizentzia ordaindu dutenak. Arrantzale hauek itsasoan nahi adina angula harrapa dezakete. Angula denboraldia hastean berriz, ibaiaren goialdera bost kilometrotara muga jartzen dute eta hortik aurrera ezin dute arrantzatu. Era honetan angulari aingira bihurtzen uzten diote. Duela denbora gutxirarte lizentzia gabekoek arrantza zezaketen, baina saldu ez. Orain ordea, angula gutxi dagoenez, ezin dute harrapatu, arrantzale profesionalak presio egin dutelako. Honen eraginez ordea, arrantzale "piratak" ugaritu egin dira, eta hauxe da arrantza honek duen arazo nagusia bai Iparraldean eta baita Frantzian ere.

Angularen anai txiroak

Angula poltsiko guztietarako jakia ez dela eta azken urteotan beronen imitazioak sortu dira: Nakulak, Gulak... e.a. Era honetan enpresa hauek ere beraien merkaturia zabaltzen

AGINAGARA IRISTEKO BIDAIA LUZEA

Oria ibaitik ateratzen diren angulak Pazifiko itsasoaren bestaldean dute beren sorburua. Mexiko Golkoan, Sargazos itsasoan hain zuzen ere, hasten da jaki gutzizatu eta garesti honen bizitza. Aingirak bertara joaten dira arrabak (arrautzak) jartzera, itsaso azpian 600 metrotara.


Larba itxurako arraba hauek (1-5 milimetro luzera ingurukoak) Golkoko itsas korronteak aprobeztatzen dituzte itzulbideari ekiteko. Itsasoan 200 edo 300 bat metrotara barneraturik, miloika angula abiatuko da handik hona, "bitelo-geruzaren" antzeko bola haundietan bildurik (plazenta antzeko poltsa da. Eta bertatik hartzen dute beharrezkoa duten oxigenoa). Denbora jakin batean, poltsa hori hautsi egiten da eta bidaiak irauten duen bi urte t'erdi edo hirutan zehar aipatutako larba horiek angula bihurtzen dira.

Europara iritsi eta ur geza usaitzean (iraila aldera), angulak sakabanatu egiten dira. Beren

bidaiaren zehar zailtasun askori aurre egin diezaiokete, ur korrontearen kontra ere joaten oso trebeak baitira; presa baten paretetik igo daitezke hezetasuna baldin badu.

Batzuk hurbilen dauden ibaietara jotzen dute. Beste batzuk berriz, Mediterrainoraino heltzen dira, eta gehienak Portugal, Galizia eta Kantauriko itsasertzean barrena jarraitzen dute harat-honako ibilian. Angulak neguaren hasieran iristen dira Aginagara. Frantziako eta Britania Handi alderako bideari ekingo diote gero.

Angula aingira bihurtu ondoren (zortzi edo hamar urte behar izaten ditu) berriro ere jaio ziren tokira itzuliko dira prozesu guztiari hasiera emateko.



ten dute. Angularen itxura berdintsua dute; batzuek diote antzeko zaporea dutela, eta beste askok antzik ere ez eman, baina dena dela, estatuan arrakasta handia izaten ari dira.

Vda. e Hijos de Jeronimo Izagirreko Dionisio Izagirrek azaldu digu produktu honen nondi norakoa: *"duela hiru urte hasi ginen produktu hauek merkaturatzen. Abadejo (bakailao bat) izeneko arrai bat erabiltzen*

da, Alaskan harrapatzen den arraia. Enpresara jadanik blokeetan etortzen dira. Guk bloke horiek xehetu egiten ditugu pure antzeko bat bihurtu arte. Ondoren, olio eta ogirina bota eta dena nahasten da. Azkenik, angula itxura ematen diogu eta egosi egiten da".

Angulak horrelako prezioarekin jarraitzen duen bitartean, hauekin konformatu behar.

Idoia Torregarai

635 MILIOI PEZETAKO UDAL AURREKONTUA AURKEZTU DU H. B.-k.



Herri Batasunak 1997ko udal aurrekontua aurkeztu zuen urtarrilaren 29an herritarren aurrean. **636. 809. 376 milioitako** aurrekontua aurreikusten du H. B.-k urte honetarako. **Joxe Antonio Altunaren** esanetan aurrekontu honetan aurreikusita dagoena alda daiteke. Izan ere, **Eroskik** eraiki nahi duen hipermerkatuaren inguruko berrien zain daude oraindik. Honek aurrera egiten badu diru iturri garrantzitsua lortuko luke udalak. Hirigintza sailean, **hilerri berria eraikitzeko lurren erosketa** eta anbulatorio gainean dagoen "**Lurkoa**" sailaren erosketa litzateke aipagarriena. Bi erosketa hauek aurten egin nahi ditu udalak. Hala ere, Herri Batasunak proposatutako aurrekontu hau otsailaren 25ean egingo den osoko bilkuran eztabaidatuko da.

JENDE ASKO GORKA AIERBE USURBILDAR DIETETIKOAREN HITZALDIAN

Gorka Aierbe duzue irudiotan. Joan den urtarrilaren 28 eta 29an bi hitzaldi eman zituen **Guraso Eskolak** antolatuta Udarregi zaharrean. Gaia: **elikadura eta nutrizioa nerabezeroan**. Elikadura eta dietetikaren lizentziatuak, lehen hitzaldian elikadura, nutrizioa, dieta, mantenu gaiak... eta beste hainbat terminu azaltzen saiatu zen lehendabizi, ondoren **dieta orekatua** zerez osatua egongo litzatekeen azaltzeko. Bigarren hitzaldian, haur eta gazteen elikaduraren ezaugarriak jarri zituen agerian, hauen arazoak, beharrak... Amaieran, hitzaldian zeuden **30 pertsona ingururi** ariketa bat jarri zien: egun baterako dieta orekatua prestatzea hain zuzen ere.



JENDE GUTXI ANIMATU ZEN SANTA AGEDA BEZPERAKO ESKERA



Bat, bi eta hiru...eup! Horrelaxe hasi zen Santa Ageda bezperako eskea herriko plazan. Bota Punttuba bertso eskolak antolatutako deialdiari erantzunez, zortzi pertsona hurbildu ziren. Jende gehiago animatuko zela uste zuten, eta pena dela horrelako ohitura bat galtzen uztea. Urte hasieratik entseiuak antolatu zituen bertso eskolak, baina apenas azaldu da jenderik horietara ere. Antolatzen ez denean, antolatzen ez delako, eta antolatzen denean, berriz...

Dena dela, umorerik ez zitzaien falta azaldu zirenei. Trikitilari eta bertsolarien artean sagardotegiz sagardotegi abiatu ziren. Koplak kantatu, sagardoa edan, afari pasara egin eta bukatzeko...bat, bi eta hiru, eup!

ESKOLA KONTSEILU BERRIA AGERIALDEN

Eskola publiko guztietan bezala, Agerialden ere **Eskola Kontseilu** berria hautatu zuten urtarrilaren 17an. Guztira **14 lagunek osatzen dute Ordezkaritza Organu Goren** hau Agerialden: bost irakaslek, zazpi gurasok, udaletxeko ordezkari batek eta irakasle ez den langile batek. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea denez, ikasleek ez dute ordezkaritzarik. Eskola Kontseilu hau bi urterako hautatuta da.

PIPERMINA ONTZRATZEKO PROIEKTUA

Usurbilgo udalak, Behemendi Beterriko Mendi Nekazaritza Elkartearen laguntzarekin herriko baserrietan eginiko inkestak piperminak garrantzi handia duela azaldu du. Herrian pipermin



Arg.: Egin

Urtero bezala, urtarrileko azken igandean **Zubietako hipodromoan** Nazioarteko krossa izan genuen. Urtarrilaren 25ean jende ugari bildu zen **Zubietako zalditokiko inguruetan**. Antolatzaileen arabera, **9.000 ikusle** baino gehiago hurbildu zen aspalditik egiten den laisterketa hau ikusi asmoz. Eguraldi bikaina lagun, ikuskizun polita eskaini zuten herrialde ezberdinetako atletek. Maila nagusietan bi afrikar izan ziren garaileak. Emakumezkoetan **Derartu Tulu** etiopiarra nagusitu zen eta gizonezkoetan keniar bat, **Korir**.

ekoiztaile asko dagoela ikusi da eta honen ondorioz udalak **pipermina ontziratze**ko proiektua martxan jarri du. **Usurbilen** piperria ekoizten duten guztiei txosten bat bidali zaie. Bertan, ontziratze zentruak ze baldintza eduki behar

dituen, pipermina enbotatzeak zer kostu duen eta merkaturuan saltzen denaren arabera atera daitekeen etekinaren berri ematen da besteak beste. Pipermina landatzen duten guztiei proiektu hau azaltzeko, **otsailak**

13, ostegunean, **bilera irekia** egingo da udaleko **Pleno Aretoan**.

PATXI AÑORGA ETXERATZEAR

lazko martxoan kondenaen 3/4ak bete zituen **Patxi Añorga preso usurbildarrak**. Otsailaren 12an, berriz, **kondena osoa betetzen du** erredentziak kontuan hartuta. Hau da, portaera onarengatik, ikasketengatik e.a. kondena-ko urteak gutxitzen dituzte. Dena dela, oraindik abokatuari ez diote ezer ere adierazi.

METAL ARLOA GREBAN

Urtarrilaren 28an metal arloko enpresek greba egin zuten. Usurbilen **Ucin, Cortes, Aburuza, Aramendi** eta **Eizagirre** izan ziren grebara atera zirenak, besteak beste.



Bi urtetik behin egin ohi den bezala, **martxoaren 14tik 23ra** bitartean, **Korrika 10** izango dugu gure artean **"Euskal Herria Korrika"** lelopean. Martxoaren 14an Arantzazun hasi eta 23an Bilbon amaituko den **Korrika 10 Usurbildik martxoaren 19an** (asteazkena) **goizeko 11etan** igaroko da. Hau dela eta, herrian **batzordea osatzeko** deia egiten da. Nahi duenak **otsailaren 13an** arratsaldeko **19.00etan euskaltegian** egingo den bileran parte har dezake.



Hika antzerki taldeak **"Henry Bengoa Inventarium"** **Bernardo Atxagak** idatzitako antzezlanaren aurkezten zuten joan den urtarrilaren 25ean. **Udarregi ikastola** barneko patioan 100 pertsona inguru bildu ziren **Joseba Aierbe** usurbildarrak eta Goenkalen diharduten **Mikel Laskurain** eta **Miren Gojenolak** eskaini zuten obra ikusi asmoz. Gaztetxoak kezu ziren ikastola kanpoan. Antzezlanaren helduentzat zenez umeei kanpoan gelditu behar izan zuten.

i zerdi patsetan

KIROL KOPLA



Jon Gallego

Irailean elite mailako esku-baloï jokalariek emandako hitzaldiak haurrengan eragin handia izan zuen. Honen ondorioz talde berriak sortu ziren. Neskak eta mutilak, alebinak nahiz infantilak fin aritu zaizkigu orain arteko txapelketetan.

Infantil mutilak ondo hasi ez arren hirugarren postuan amaitu dute lehen fasea. Entrenatzaileen ustez mutil hauen aurrerakuntza ikaragarria izan da eta bigarren fasean oso ondo ibili daitezke.

Infantil mailako neskak aipatzerakoan, lehen fase bikaina burutu dute. Hirugarren postuan amaitu dute baina gorago egoteko gai direla azaldu digute.

Haur hauek kirol honetan berriak direla eta prestatzaile gazteek ere lehen aldiz entrenatzen dituztela kontuan hartuz, esperientzia ontzat jo dezakegu.

Donostia aldeko txapelketan finalera iritsi diren Udaregi ikastolako bi alebin taldeak ere ezin ditugu ahaztu. Ez eta hauek aurrera eraman dituzten prestatzaileak. 11-12 urteko hurrekin lana egitea esperientzia berria zen hauentzat eta oso gustora amaitu dute. Ez finalera iristeagatik bakarrik, bi taldeen artean sortu den harreman sozialarengatik baizik.

Zorionak beraz, eskubaloian aritu zareten haur eta prestatzaile guztiei. Eta noski, segi aurrera!

KIROL TALDEEN ARTEKO DIRU BANAKETA

Ez da erraza herriko kirol taldeen artean dirua banatzea. Urtero zenbait talde ez dira gustora gelditzen eta ahal den egokien orekatzen saiatzen bagara ere oso zaila da erizpide zehatz batzuk erabiltzea". Honelaxe hitzegin zigun **Yurramendik Kirol Patronatuko** zuzendariak 1996ko diru banaketaz galdetzerakoan.

Urtero arazo bera. Nahikoa diru ez denentzat eta banaketa egiteko mila oztopo. Azken urteetan honi konponbidea ematen saiatu badira ere orandik ez dute formula egokirik aurkitu. 1996ko diru banaketa egiterakoan taula bat erabili dute. Bertan, kirol taldeek 1995ean izandako gastuak (federazio gastuak, materiala, bidaiak...), autofinantziazioa, sustapena (fitxa kopurua) eta ekintza bereziak hartu dira kontutan, horren arabera dirua banatzeko.

Hala ere, taula erabili ondorengo emaitzekin gustora ez eta diru banaketa orekatzen saiatu dira. **Kirol Patronatuaren** esanetan, "taula honekin egin dako diru banaketa desoretua gelditzen zen. Horregatik emaitzak ikusi ondoren guk borobildu egin dugu kirol talde bakoitzari dagokion diru kopurua".

Kirol Patronatuak argi dauka ezin duela sistema honekin jarraitu. Taldeen arteko desadostasunak nabariak dira eta beren artean akordio batera iritsiz proposamenak beraien egitea nahi du. Ez bakoitzak proposamen bat, guztiak bildu, egoera aztertu, eta denek batera egindako proposamena baizik. Beraz, arazoa lehen bait lehen konponzeko otsailean kirol talde guztiak biltzeko deialdia egingo du **Kirol Patronatuak**.

Josu Aranberri

Kirola	1995	1996
Txirrindulariak	380.208	380.862
Judo	381.973	565.248
Futbola	327.643	136.752
Karate	116.251	145.563
Eskubaloia	1.460.470	1.697.695
Mendia	126.658	158.594
Joko-garbi	304090	260190
Gimnasia	119.098	124.273
Eskupilota	273.091	359.486
Areto Futbola	175.513	101.431
Guztira	3.664.995 pzt.	3.930.100 pzt.

Barruko arropa-likak eta etxeko arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87

TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak eta bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

ORBELDI
MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Lehiaketa

Ihauteri garai honetan lehiaketa ere mozorrotu zaigu. Margo eta arropa horien atzean nortzuk dauden asmatzen lagundu behar diguzue. Horietako **lauren izen abizenak** esaten baldin badizkiguzue, bi lagunentzako afari bat zozketatuko dugu **Zumeta** jatetxean.

Erantzunak gure buzoira bota ditzakezue, kale nagusiko 37. zenbakira.



Maria Pilar Maiz gustora asko hurbildu zen **Patri** aldera egokitu zitaion afaria dela eta. Lehiaketan partehartu duen lehen aldia izan da, eta bai zortea eduki ere! Ilusio handia egin omen dio sariak eta afariak ere hala egingo ahal zion...

Aurreko aleko galderaren erantzun guztiak zuzenak izan dira. Ez dakigu bolotarako afizioagatik izan den, Zubietako bolatokira hurbildu zaretelako edota txirripaz asmatu duzelako. Baina, bai, "**bederatzi birla**" dira boloekin bota behar direnak.

Sekaña jatetxeko afaria ez da bederatzi pertsonentzat, **Aitziber Lanberri** eta berak aukeratzen duen lagunarentzat, baizik. Zorionak!

omikia



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



Aginaga
36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia



San Esteban kalea, 1
Usurbil

Tlf 36 00 80

A genda

OTSAILAK 10 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

OTSAILAK 13 osteguna

- Udalak pipermina ekoizten duten guztiei deialdia egiten die **pipermina potetan sartzeko proiektuaren** berri emateko. **Udaleko pleno aretoan.**

- **Korrika 10** dela eta, **batzordea osatzeko** deia egiten da. Arratsaldeko **19.00**etan **euskalgegan.**

OTSAILAK 15 larunbata

- Espero bezala, **Patxi Añorga** askatzen baldin badute, **omenaldia** egingo zaio arratsaldean. Gauean **afaria** egingo da.

OTSAILAK 16 igandea

- **Arrate Zahar** egoitzako jubilatuak **96. urteko balantze ekonomikoa** burutuko dute. Goizeko **10.30**etan **meza nagusia** ospatuko da. Eguerdiko **12.00**etan **asamblea** egingo da. Eta eguerdiko **14.00**etan **bazkaria** egingo dute.

OTSAILAK 17 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

OTSAILAK 20 osteguna

- **Luken Arriaga** epaituko

Guraso Eskolak antolatuta, "**Nerabearoa edo adoleszentzia. arazoa ala etorkizun proiektua?**" hitzaldia izango da Udarregi Zaharrean otsailaren 18an, asteartea, arratsaldeko 18.00etan. Hizlaria: **NORBERA**ko kide bat.



dute intsumiso izateagatik.

OHARRAK

- ✓ **Fernando Pinturak** gabonetan **alfonbra baten zozketa** egin zuen. Zenbaki saritua **671** izan zen. Oraindik **irabazlea ez da agertu**, beraz, begiratu zure txartelari, beharbada zeuk izango duzu zenbaki hori!
- ✓ Hainbat taldek "**Saharako Euskal Karabana 97**" kanpainia jarri dute martxan. Proiektua Saharar herriarekiko elkartasuna suspertu nahi du. Oraingoan gure herri-an eskuratzeko erraza eta saharaiuen gustukoa den hegaluzea aukeratu da laguntza emateko. **Kanpainia otsailaren 10** arte zabalduko da. Bilketa **Udaltzain-goaren ondoan dagoen lokalean** egingo da. Atunak honako ezau-garriak izan behar ditu: **-Oilotan kontserbatutakoa** izan behar du. **-250 eta 300 gramu tarteko latetak** izan behar. Honoko materiala ere onartuko da: **-Gurpil azalak eta kama-**

rak, berriak eta 12x20 eta 7,50x16 neurrikoak.

-Bateriak, berriak eta 130A-12V eta 90A-12V indarrekoak.

-Ibilgailuak (kamioiak).

Ibilgailuak eta ordezeko piezak erosteko **laguntza eman nahi dutenek** kontu korrante honetara eman dezakete: **Lankide Aurrezkia 3035 0060 40 0600071286.**

- ✓ **Bota Punttuba** bertso eskolak **Bertso afaria** antolatu du datorren **otsailaren 22**rako. Bertan, **Joxe Agirre** eta **Aitor Mendiluzek** parte hartuko dute. Afairako txartelak hartzeko **epea otsailaren 18**an amaitzen da, **Txiriboga tabernan** eta **Lizardi liburudendan. 2000 pezeta.**
- ✓ Andatza K.E.k **eski irteera** antolatu du datorren **martxoaren 8 eta 9**rako **Luz Ardidenera**. Izena emateko **epea otsailaren 9**an amaitzen da. **Txiriboga tabernan. 5000** pezetako fidantza eskatzen da; gutzira bidaia **10.500** pezeta kostako da.



BAZKIDIE TXARTELA

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

OTSAILAK 8 larunbata

- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Askartza-Usurbil K.E.** Leioan.
- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (M): **Askartza-Usurbil K.E.** Leioan.
- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (M): **Escolapios- Usurbil K.E.** Bilbon.
- Kadete mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil- Axular Lizeoa.** Harane futbol zelaian

OTSAILAK 9 igandea

- Kontxako senior futbol liga-ko partidua: **Aginaga Sagardotegia- Meka-Rapid.** Goizeko 10.00etan zarpigarrren zelaian..

OTSAILAK 15 larunbata

- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Bergara-Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- El**

Pilar. Arratsaldeko **16.00**etan Oiardo kiroldegian.

- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- El Pilar.** Arratsaldeko **17.30**etan.
- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Egia.** **19.00**etan.

OTSAILAK 16 igandea

- **Saskibalo**i partidua (M): **Usurbil S.T.- Ind. Lagun Artea** Kadete mailako **futbol** partidua (M): **Antiguoko- Usurbil.**
- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Zarautz.** Goizeko **11.00**etan.



Usurbilgo saskibaloi taldea bere bigarren garaipenaren bila aterako dira Oiardo kiroldegian goizeko 12.00etan. Aurrez aurre **Lazkaoko Saskibalo**i taldea izango dute.

maitzak

ESKUBALOIA

Urtarrilak 25-26

Urdaneta 26 Usurbil 15 (2. nazionala)
Usurbil 1 Zarautz 21 (kadete neskek)
Usurbil 16 Pulpo 18 (jubenil neskek)
Basauri 22 Usurbil 23 (Jubenil mutilak)
Basauri 27 Usurbil 17 (Kadete mutilak)

Otsailak 1-2

Usurbil 28 Gure Auzune 28 (2. N)
Urnietia 13 Usurbil 13 (Kadete neskek)
Bidebieta 15 Usurbil 22 (Jubenil neskek)
Usurbil 15 Bidasoa 24 (kadete mutilak)
Usurbil - Bidasoa. Aplazatua

FUTBOLA

Urtarrilak 25-26

Intxaurren 0 Usurbil 2 (2.regionala)
Usurbil 1 Antoniano 0 (2.jubenilak)
Usurbil 2 Bergara 1 (regional neskek)

Otsailak 1-2

Usurbil 3 Baskonia 2 (regionalak)
Ilintxa 8 Usurbil 0 (jubenilak)
Aldapeta 2 Usurbil 2 (kadeteak)

SASKIBALOIA

Urtarrilak 25-26

Usurbil S.T 33 Uztapide 69 (senior)

Otsailak 1-2

Kevin Sport 56 Usurbil S.T. 37 (senior)

ARETO FUTBOLA

Urtarrilak 25-26

Cafe Boulevard 3 Antxeta 3

Otsailak 1-2

Antxeta 2 Pasteleria Adarra 3

HONDARTZAKO FUTBOLA

Urtarrilak 1-2

Aginaga Sagardotegia 4 Itsas Gain 0



Skaitze

Bideo eta Argazkiak

Usurbil tlf 36 14 87

oiartzun



kafe berezia

ETXER-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Oraintxe duzu Usurbilgo sagardo berria probatzeko aukera

ilLunbe



Txotxdenboraldia irekiberria.
Aurtengosagardoa dastagai.

Txoko alde
Tlf. 37 16 49


iruIn



Bertakosagardoberri adastagai.
Sagardotegiko giroa eta menua.

Zubieta
Tlf. 36 12 29


saizar



Hemendik aurrera 45 kupeletako sagardoa
dastagaidenboraldiosan.

Kalezar
Tlf. 36 22 28

urDAiRA



Egunero irekita, igandegauetanez.
Bertakosagardoberri probatzeko aukera.

Aginaga
Tlf. 37 26 91


AGiNA GA



Egunero irekia astelehenetanez.
Menu aukera zabala, sagardotegikoabarne.

Aginaga
Tlf. 36 67 10

Araeta



Urte osoan txotxetik bertakosagardoa.
Egunerozabalik. Lekulasaieta aparta.

Zubieta
Tlf. 36 20 49